

# Aretxagazeta



ETA GAINERA...

**Ze barri?**

ASTEKO GAIA  
**Antimilitarista**  
Eguna /8

HEZKUNTZA  
**'Koldotxo' hiztegiaren**  
berri /9

LEINTZ GATZAGA  
**Legaldiaren**  
balorazioa /10

**ZABALIK  
DAGO  
KZGUNE**

**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 5**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99

**DOMEKA, 6**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen ..... 943 71 49 07  
ARETXAGAZETA ..... 943 79 86 21  
Faxa ..... 943 77 18 54  
Basotxo ..... 943 77 09 81  
Euskaltegia ..... 943 79 21 68  
Gizarte laguntzailea ..... 943 71 18 62  
Hezibide elkarte ..... 934 79 31 32  
Industrialdea ..... 943 79 62 80  
Instituta ..... 943 79 79 00  
Kirol etxea ..... 943 71 26 28  
Kultura etxea ..... 943 71 10 27  
Kurtzebarri Eskola ..... 943 79 00 49  
Kurtzebarri BHI ..... 943 79 57 40  
Liburutegia ..... 943 71 18 62  
Loramendi EE ..... 943 77 09 70  
Ludoteka ..... 943 79 05 81  
Mankomunitatea ..... 943 79 30 90  
Murruxo ME ..... 943 79 93 74  
Musika Eskola ..... 943 79 36 50  
Osasun etxea ..... 943 71 19 59  
Otalora ..... 943 71 24 06  
Parrokia (bulegoa) ..... 943 79 18 42  
Pausoka Haur Eskola ..... 943 77 03 77  
Postetxea ..... 943 79 28 31  
Santa Rita Ikastetxea ..... 943 79 17 00  
Saretxo ..... 943 71 26 56  
Taxi geltokia ..... 943 79 22 33  
Udal Bulegoak ..... 943 71 18 62  
Udaltzaingoa ..... 943 71 18 63  
Urats Gain ..... 943 79 99 11

**UDALZAINGOA**  
Arrasate ..... 943 79 14 39

**LARRIALDIK**

SOS Delak ..... 112  
Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00  
Ertzaintza ..... 943 79 71 99  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
Larrialdia ..... 943 46 11 11  
Suhiltzaileak (Oñati) ..... 943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00, 12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Hiletak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Zapatutan: 18:30  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN: AOZARATZA**  
Domeketan: 12:30

**ARKARAZO**  
Domeketan: 11:30

**GELLAO/GALARTZA/IZURIETA**  
Hilabete honetan ez dago mezarik.

**OHARRAK**

**HERRI BATZARRA**  
Prozesu feministaren gaineko herri batzarra egingo dute apirilaren 7an, astelehenean, udaletxeiko ganbaran, 19:00etan.

**KORRIKA TXIKIA ETA KORRIKA**  
Astelehenean, hilaren 7an, pasatuko da Korrika 13. 15:15ean ikastetxeetako ume eta gaztetxoek Korrika Txikia egingo dute. Gero, musika, buruhandiak eta Leizarra Musika Eskolako perkusio taldea ibiliko dira arratsaldea giroten. 18:10 inguruan sartuko da Korrika Eskoriatatik, eta gero Arrasaterantz joko du.

**HITZALDIA, BASOTXON**  
Jabego horizontala eta jabekideen arteko harremanak izango dituzte hizpide apirilaren 10ean 17:00etan Basotxo Elkartearen.

**UDALEKU IREKIETARAKO BEGIRALEAK**  
Kultura Sailak udaleku irekietarako begiraleak behar ditu. Curriculumak kultura etxera eroan, posta elektronikoz bidali [kultura@aretxabaleta.net](mailto:kultura@aretxabaleta.net) helbidera, edo posta arruntez bidali: Kultura Saila; Otalora 1; 20550; Aretxabaleta. Udaleku irekietako zuzendaritza taldea ere osatu gura dute; hortaz, taldean parte hartu gura izanez gero curriculumean aipatu.

**LORAMENDIRENAGENDA**

**DIAPOSITIBA EMANALDIA**  
*Atxabaltarrak txapapotea jasotzen* diapositiba emanaldia egingo dute Gabonetan Galizian egon ziren aretxabaletarrek apirilaren 10ean, eguenean, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

**KAFE ANTZERKIA**  
*TRABENA espektaKULO*a antzezlana eskainiko du Goaz taldeak apirilaren 11n, egubakoitzean, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

**ORAINDELA 10URTEARETXABALETAN**

**Krisiaren gaineko mahai-ingurua Beinkek**

Beinke elkarteak krisiaren gaineko mahai-ingurua egin zuen 1993ko apirilaren 6an. Anton Mendizabalek, Jesus Mari Herrastik eta Juan Mari Otxoa burtsan adituak ibarreko egerra sozioekonomikoa eta langabezia aztertu zituzten. Herritar ugari hurreratu ziren.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Abarua"**

Arbolapeko babesa.  
—*Abarua ero keizpia; eurixa danian arbolapera joango gaittuk, abarua jak or da.*



**ZORIONAGURRAK**



LEINTZ-GATZAGA  
**Pantxi Ibarzabal**  
2an. Zorionak eta muxu handi bat, Alaitzen, Eñauten eta Manexen partetik.




ARETXABALETA  
**Maialen Garai**  
3an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, laguneren partetik.




ARETXABALETA  
**Mainer Idigoras**  
4an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Ane Etxabe**  
4an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Olaia Arrese**  
4an. Zorionak eta urte askotarako, lehengusu guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Yolanda eta Zuriñe Belategi**  
4an. Zorionak eta muxu bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA  
**Iratxe Hernández**  
5ean, 2X urte. Ui, ui, zahartzen gabiltzala! Zorionak, eta muxu bat.



ARETXABALETA  
**Gotzone Arrese**  
5ean. Zorionak eta muxu bat, lehengusu guztien partetik.



ARRASATE  
**Jokin eta Maialen Salido**  
Apirilaren 5ean, 3 eta 9 urte. Zorionak! Familiakoak.



ARETXABALETA  
**Markeliñe Mendieta**  
6an. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**Liburu berrien zerrenda**

- 6 urtetik aurrera:**
- 'Irri eta barre'/ Joxantonio Ormazabal
  - 'Semaforoa'/ M. Angels Bogunya
  - 'Azeria eta arrain saltzailea'/ Jordi Vinyes
  - 'Marmota asmatzailea'/ Enric Larreula
  - 'Kosk egiten dut'/ Xabier Mendiguren
  - 'Hankak nahi zituen sugea'/ Akonio D'olo
  - 'Mustroak, S.A.'/ Disney
  - 'Atlantis inperio galdua'/ Disney
- 8 urtetik aurrera:**
- 'Karokol txikiren ipuinak'/ Karlos Zabala
  - 'Roke izeneko komuna'/ Antton Dueso
  - 'Luzi, Fer!'/ Jon Suarez
  - 'Txakur berde baten istorioa'/ Seve Calleja
  - 'Untxi magikoen matxinada'/ Ariel Dorfman
  - 'Pako fakirra'/ Xabier eta Martin Etxeberria
  - 'Arreba txiki bat dut, eta zer?'/ Txiliku
  - 'Honelakoxea da nire arreba, eta zer?'/ Pako Sagarzazu
  - 'Zape, katu Jauna'/ Xabier Diaz

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

KOOPE.S.COOP

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4  
Tfnoa.: 943 791844 / Faxa: 943 792941  
info@eguzkigraf.com  
20550 ARETXABALETA


**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

*Lubia*  
oinetakoak

zapatak, zapatilak, gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00  
ARETXABALETA  
Biteri 1 • 943 79 66 53  
ARRASATE

## ATREBENTZIAEZPADA/ Azken lau urtiotako Udal batzordiek ze moduzko lana egin dau herrixen?




**KARMELO BENGOA**  
Jubilau



**ANABEL ARANZADI**  
Langillie



**ANE GAZTAÑAGA**  
Langillie



**LUIS M<sup>a</sup> MADINABEITIA**  
Langillie



**GOIZANE MENDIZABAL**  
Langillie



**MONTXO LÓPEZ**  
Langillie

Lan ona egin dau. Urkulurako bidie oso idea ona izen da. Bestalde, Mitarte kalien oiñezkuendako espaloi hobia jartzie falta da, eta arazo horrei ez dutzo kasurik be egin.

Uste dot herrixen lan ona egin dauela Udalak: KZGunie, ludoteka barrixa, Pausoka... egin dittu. Baiñe batez be ikusi dotena da herrixen etxe ugari egin dittuela.

Jeneralien gauzak ondo egin dittu Udalak. Urkulurako bidie asko gustau jat. Baiñe gaztetxiari dagokionez, esate baterako, ez jat askorik gustau Udalak erakutsi dauen jarrerie.

Lan ona egin dauela esango neuke. Umiekin pasietako Urkulurako bide egokixa egin dau. Hurrengo datozenei be antzeko lana egin daixien eskatu gure dutziet.

Egindako danak ondo dauzela pentsetan jat. Bestalde, kulturiekin zerikusixe daukien gaixetan makal samar ibilli da Udala: antzerkixek, kontzertuek... faltan igerri dittut.

Lan ona egin dau Udalak. Ilargi plazan sarri egoten naz, eta asko gustetan jat umiek jolasteko jarri dauen lekue. Bestalde, kulturari dagokionez zerbait gehixago egin biherko leuke.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK POSTA ZERBITZUARI** Baserritarrek zortea dute horren parañe politean bizi izateagatik. Baina denak ez dira onurak. Posta jasotzerako orduan, esaterako, desabantailak dituzte. Eta Correos-ek irtenbide bi eskaintzen dizkie: bata, herrian posta-kutxatila jartzea (ordainduta, jakina); eta bestea, posta, gutxienez, astebeteko atzerapenarekin jasotzea. Correos-koei, baserritarren partetik, txistua. /A.L.

### ETABARRUAN...

ELKARRIZKETA /04

**Anjel Bergaretxe**

Legealdia bukatzeaz dago, eta lau urte horien inguruko balantzioa egin du alkateak.

ERREPASOA /05

**Alderdien iritziak**

Udaletxean azken lau urteotan izan diren alderdietako ordezkariak euren iritzia eman digute.

KORRIKA /07

**Astelehenean Korrika dator**

Astelehen arratsaldean pasatuko da guretik Korrika 13. Ordurako hainbat ekintza antolatu dituzte.

### ASTEKODATUA

6

#### KILOMETRO EGINGO DITUZTE HERRITARREK KORRIKA 13N

Korrika 13 ekitaldiaren barruan, aurtun Aretxabaleari sei kilometroko ibilbidea egokitu zaio. Tarte horretan, betiko moduan, hainbat herritarrek egingo dute euskararen alde korrika.

### BESTEKEKESANA

**“Eskola honetan liburutegia dinamizatzen saiatzen gara eta horretarako ekimen desberdinak jartzen ditugu martxan. Normalean urte osoan egiten ditugu literatura-ekin lotutako ekitaldiak, baina urtean behin une berezi bat ere izaten dugu: Literatura Topaketa, hain zuzen ere.**

**Aurtengo Literatura Topaketa- ren ardatza komikia izango da. Urtero genero desberdinak lantzen ditugu, eta aurtun, Ipurbeltz-en 25. urteurrena aprobetxatuz, komikia lantzea pentsatu dugu.**

**Ipurbeltz oso garrantzitsua izan da guretako eta, batez ere, orain gazte zaretenondako. Irakurzetasuna bultzatzeko orduan abiapuntua izan da komiki hori. Eta gaur egun ere halaxe dela esango nuke.**

**TXARO URRUTIA**  
GOITB/03-03-28

### HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



*Egunero*

**E**gunero dena okerrago, sasoi latzak, honeik berbok etorri jat burure Egunero entzutien.

Egunero moduko periodiko bat kalien eukittie txaloketakue da pasau dana pasau eta gero. Egunero Egunero hor daukou kioskuen zain, baina noix arte? Beste askori moduen, galdera mordue gaketan jat niri hor aiddien: eta hamendik aurrera zer, zein izengo da hurrengue...? Garbi dauena da honek periodiku honek irakurliet bihe dittuela, irakurle gosiaz dau. Oin dala hamazortzi urte atara euen Hertzainak taldiek hau letriau dauken abestixau, eta urtiek pasau ahala ederto datorkixo bizi douen garaixei. Gauza asko eta askotan okerrau gabitz, Euskal Herrixen beti ez esatiarren, sasoi latzak pasetan gabitz. Hau abesti zoragarrixau entzuten doten bakotxien zer pentsau asko emuten dust. Ikusten danez, orduen be Gari eta bere taldiek injustizia asko ikusten zittuela hamen eta hori abestixen bittartez transmitidu gure

izen euiela. Gerrie da honen sasoi latz honen beste erakusgarri bat Ikusten da aurrera ein biherrien atzerapasuek emuten dittugule, nahiz eta gero esan XXI. mendeko gizakixek garella. Zetako izen XXI. mendeko gizakixek holako sarraskixek aurrera eruen biher badie?

Egunero Egunero erosten eta irakurten jarraituko dou askok eta askok, nahiz eta jakin honek kaduzidade fetxa bat daukoka. Euskaldunok beste askotan erakutsi douen letxe, inderra badaukou holako erresistentzia batei aurre eitteko, eta hontan mobilizau dan beste jentek biherria dauenien barriro eingo dau.

Nik hau txokotxu hau zerrau baiño lehenau, elkartasune erakutsi gure dutsiet Euskaldunon Egunkariako langille eta atxilotu danei, eta torturetuek izen die nei. Beste behin erakutsi da hamen herrixen torturiek bizirik jarraitetan dauela, eta hori ezin geinke onartu. Batzuk kalien dazgeure artien, baiñe gaketan dienak be kalera atara bihe die.

**“Gerrie da sasoi latz honen beste erakusgarri bat. Ikusten da aurrera ein biherrien atzerapasuek emuten dittugula”**

**Aretxagazeta**

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martín

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
55-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako  
Kultura Saila

Gipuzkoako  
Foru Aldundia

Aretxabaleako  
Udala

Eskoriatzako  
Udala

Leintz Gatzagako  
Udala

## AGINTALDIARI BEGIRATUA

ANJEL BERGARETXE/ALKATEA

*“Beti defendatu dut herriarendako onena; agian oker ibili naiz, baina hori zen helburua”*

MIRARI ALTUBE

**L**egealdia bukatzeko hila-bete bi ere ez dira falta, eta pasatutako lau urte horiek baloratzeko momentu egokia da. Anjel Bergaretxe alkateak lau urteotako gorabeherak gogoratu dizkigu, momentu pozgarriak batzuk, gogorrak beste batzuk.

**Egizu lau urteotako balorazio orokorra.**

Ez da samurra, baina orokorrean positiboa izan dela esango nuke. Dagoeneko hasita zeuden lan batzuekin jarraitu dugu, beste batzuk geuk hasi ditugu, eta egin barik ere geratu zaizkigu; izan ere, lau urte uste baino motzagoak dira administrazioan. Hala ere, balorazioa herritarrek eurek egin beharko lukete.

**Legealdi hasieran jarritako helburu guztiak ez badira ere, gehienak bete dituzue?**

Bai, gehienak bai. Bete barik utzi dugun bat aipatuko nuke, eta neuretako, gainera, oso garrantzitsua: kulturarako azpiegitura. Ez dugu lortu gauzatuta uztea, baina oraindik legealdia bukatu aurretik aurrerapausoren bat egiteko esperantza daukat; bideratuta, behintzat, utzi gurako nuke.

**Eta bete dituzuenen artean zer nabarmenduko zenuke?**


Ez dakit, asko daude eta aipatzen hasiz gero baten bat ahazteko arriskua dago. Sarritan ikusgarrienak aipatzen dira, hirigintzako lanak, baina ikusten ez diren asko daude: Ibarra Berriko kooperatibarekin egon zen arazoa, esaterako. Gurekiko zeukaten zorraren auzia konpondu zen, eta horren ondorioz ingurua urbanizatzea lortu genuen. Durana kaleko 13. atarteko etxebizitza berri eta Atzegiko gutxitu psikiko eta fisikoei ematea ere oso garrantzitsua izan da. Urkulura doan bidegorria bera ere arrakastatsuenetakoa izan da. Eta beste hainbat.

**Beste batzuk egin barik geratu dira: gaztetxeko auzia...**

Bai, halaxe da. Ez genuen gaztetxeko auzia bereziki konpondu gura, baina legealdiak aurrera egin ahala gaiztotzen joan zen, eta momentu honetan gelditu dago. Zer gertatuko zain gaude, baina konpontzeko bidean dagoela esango nuke. Gazteek lokal bat aurrera eroateko proiekturik baduten jakin beharko genuke.

**Etxebizitzak aurrera doaz...**

Bai, poliki baina badoaz. Eki-men berezi bi daude: batetik, 14 etxebizitza sozial Lasa baserria dagoen lekuan. Gura baino politikago doa, Eusko Jaurlaritzan



MIRARI ALTUBE

*“Ez dugu kulturarako azpiegiturekin egin, baina bideratuta utzi gurako nuke”*

bertan atzeratu delako auzia, baina badoa, eta ez Ezker Batuak etxeetara banatu duen paperean esaten duten moduan. Ez da egia IU-EBk kontseilaritza hartu zenean desblokeatu zenik auzia, hitzarmena aurretik sinatuta zegoen-eta. IU-EB heldu zenean Madrazorekin berba egiteko eskaera bi aldiz egin genien, eta ez genuen erantzunik jaso; hortaz, ez dezatela gezurrik esan. Momentu honetan proiektua egiten ei dabilta. Bestetik, erreka osteko zona dago. Ez gara geldirik egon, baina lanak hasi aurreko prozesua luzea da, eta orain plan partziala egiten gabilta: etxebizitzak non egin zehaztu, zelan

*“Durana 13ko etxebizitza berritzea eta Atzegikoei ematea oso garrantzitsua da”*

urbanizatu behar den erabaki... **Egindakoen artetik zerk ematen dizu poz berezia?**

Denek, baina bat nabarmen-tzekotan, Durana 13ko etxebizitza. 12 eta 16 urte arteko gazteendako jarriko den gazte-lekuaren proiektua ere aipatuko nuke; ikusteko dago zelan funtzionatu duen, baina eskaera handia egon da, eta horrek ere pozten nau. Bidegorriak, Errotabarriko espaloia behingoz bukatzeak, Solohandi auzi-neko hornikuntza eta saneamentu lanak... Askok daude.

**Egiten utzi ez dizuetenik badago?**

Bai. Ez nuke hainbeste pertsonalitatuko, baina kultura azpiegi-

*“Gobernu batzordean krisialdi momentuak egon dira, baina gaintitu egin ditugu”*

turetan ez aurreratzeak izugarriko pena ematen dit. Geure artean adostasuna zegoela uste nuen, baina ez zegoen, eta bestelako ideiak berandu eta momentu ezegokian adierazi izanak min eman dit.

**Gobernu batzordea EAJ/EArekin osatu duzue. Zelan funtzionatu du?**

Funtzionatu du; krisialdi momentuak egon dira, baina gaintitu egin ditugu, eta aurrera egin dugu. Legealdi honetan pazientzia handiagoa eduki dugu, elkar ulertzeko gogo handiagoa egon da alde guztietatik, eta momentu txarrak gaintitzen jakin dugu.

**Eta gainerakoekin, hau da,**

**PPekin eta PSEekin, egon da harremanik?**

PSEko Iñaki Pierrugues lehenengo hiru urteetan ez da agertu ere egin, eta bere hautesleei izugarriko iruzurra egin diela uste dut. Azken urtean agertu denean ez da laguntzera etorri, politika merkea egitera baizik, proposatutako guztia aurka egiten du-eta. Orain, gainera, komunikabideetan agertu guran dabil gezurrak esanaz. PPkoarekin, Maria Rosario Arruerekin, ez da harreman handirik egon, baina guztiz bestelako jarrera izan du legealdi osoan. Kanpotarra da, eta ez du herria ezagutzen, baina gure lana ez du inoiz oztapatu. Jarra parte-hartzailea izan du; gainera, osoko bilkura gehienetara eta zaharren egoitzako errektore kontseilura etorri da. Errespetu handiz baloratzen dut haren jarrera, kanpotarra izateak herriari ez diola onik egiten pentsatu arren.

**Beti egon dira herriaren interesak politikaren gainetik?**

Niri dagokidanez bai. Batzuen jokaeran garbi dago ezetz, Iñaki Pierruguesen kasuan, esaterako, eta beste batzuen kasuan ez dakit, euren galdetu behar. Nik beti defendatu izan dut Aretxabale-tarendako onena; beharbada oker ibili naiz, baina herria izan dut helburu, eta taldekideek berdin.

**Une txarrak ere bizi izan dituzu. Mehatxua jaso zenuen iaz...**

Bai, hala da, egoera orokorren adierazlea izan zela esango nuke. Gogorra izan zen, baina neuretako baino gehiago, ingurukoendako. Hala ere, egon dira momentu txarragoak, nahiz eta hain adierazgarriak ez izan. Baina pozik nago, balantzea egite-rakoan momentu onek pisu handiagoa dutelako. Banan-banan kontatzen hasiz gero seguru txarrak gehiago egon direla...

**Eta momentu onen artean zein nabarmenduko zenuke?**

Norbaitek zerbait ondo egin dugula esan didanean, beharbada ez delako ohikoa izaten. Horrek 20 kritika ahazteko balio du. Lehen aipatutako proiektuak bukatuta ikusteak ere poz handia ematen du: Durana 13ko etxebizitza...


**Zelan datoz udal hauteskundeak, giroa ikusita?**

Egoera normalean, behintzat, ez datoz. Hasteko, orain dela lau urte irabazle izan zen indarra, geurea, legez kanpo dago, eta geure egoera pertsonalaren gainean zurrumurru asko entzuten ditugu. Ez da demokrazia defizita dagoela, faxismo superabita baizik, eta ez dakit zer gertatuko den...


## Beste udal taldeen iritzia




**KARMELO AZKOITIA**  
EAJ



**PABLO TXINTXURRETA**  
EA



**MARIA ROSARIO ARRUE**  
PP



**IÑAKI PIERRUGUES**  
PSE-EE

**B**ukatzeaz dagoen agintaldi hau era egokian burutu dela esango nuke. Gure arteko ideia ezberdintasunak alde batera uzten jakin dugu Udalaren kudeaketan elkarri laguntzeko.

Oso positiboki baloratzen dugu HBK erakutsitako jarrera politikoa. Izan ere, kultura aretoari dagokion proiektua alde batera uzten jakin du, eta kultura azpiegiturari, kultura etxeari, musika eskolari, auditorioari, kirola egiteko lekuari... dago-kion proiektu indartsua adostu dugu. Era berean, erreka beste aldeko lursaila garatzeko oinarriak jarri dira. Proiektu horrek gazteek etxebizitzak prezio egokian lortzeko dituzten arazoak konpon ditzake betiko.

Alkateak udal aurrekontuak egiteko erabili duen moduan, ostera, ez dugu adostasunik lortu. Ezta herriko hormetako pintadak garbitzeko HBK erakutsi duen interes faltan ere. Ideiak eta mezuak errespetua eta gustu ona galdu barik zabal daitezke. Penagarria da ibarreko herri zikinena izatea.

**G**obernu batzordeko kide gisa egiten dugu lau urte hauetako balorazioa. Politikari dagokionez, ideologia berekoak ez izateak dakartzan ezberdintasunak egon arren, gai gehientsuenetan adostasuna lortu dugu; aztertutako mozio gehienak, esaterako, adostutakoak izan dira. Gestioari dagokionez, iazko udal aurrekontua izan ezik gainerakoak adostutakoak izan dira. Iazkoaren kasuan, ez genituen irizpide berak izan aurrekontuak egitean.

Ekintzarik nabarmenenak aipatzeko-tan, Urkulu inguruan Euskadiko Kutzari erositako lurra aipatuko genituzke. Etor-kizunari begira gestiorako bi tresna garrantzitsu ere jarri dira abian: Plan Estrategikoa eta Aretxabaletako Bihargintza. Horiek biek etxebizitzaren, kultura eta kirol azpiegituren... gestioa bizkortuko dute.

Bukatzeke, Gobernu batzordea osatu dugun kideon artean harreman ona egon dela aipatu, eta herriko gazteak Udalaren kudeaketan parte har dezaten animatu.

**A**retxabaletako Udaleko zinegotzi naizen aldetik hiru puntutan laburtuko nuke lau urte hauetan Aretxabaletako Udalak egindako lana.

Udalak egin duen gestio ekonomikoa, batetik, eta plan estrategikoa, bestetik nabarmenduko nituzke. Aipatutako bi puntu horiek egoki landu baditu ere, badago batere ondo egin ez duenik ere. Gazteak zuzentzeko interes falta, hau da, gazteak herriarekiko eta herritarrekiko errespetuzko harremana izatera bideratzeko interes falta. Gazte horiei herria zikintzen eta pintadak egiten uzten diete, eta batzuk benetan mehatxuzkoak direla kontuan hartu behar da. On egitea beste helbururik ez duten herritarren askatasuna murrizten dute, gainera, beldurtu egiten dituztelako, eta ez dietelako bakean eta lasaitasunean bizi izaten uzten.

Bukatzeke, alderdien arteko harremana zuzena izan dela gaineratu gurako nuke; zuzena, baina hotza.

**L**izarrako Itunarekin eman zitzaion hasiera agintaldiari. Itunaren aurretik abertzaleek eta ETAk sinatutako konpromisoak euskal erakunde guztietan abertzaleak ezartzea zuen helburu. Horrela, talde konstituzionalistak kanpoan utzi zituzten eta euskal gizartearen eta Aretxabaletako Udalean lehenengo aldiz haustura sortu zuten.

Udala EHren alkatetzarekin eta alderdi abertzaleekin osatu zuten. Lau urteotan ETA egiten dabilen ideologia garbiketa eta aurkariaren ezabaketa fisikoa bizi izan dugu. Horren adibide izan dira sozialisten egoitzaren kontrako erasoak eta agintaldi osoan ohikoak izan diren mehatxuzko pintadak. Hori guztia, gainera, EAJren eta EAren sentsibilitate faltaren aurrean.

Kudeaketari dagokionez, aurreko udal agintariak ezarritakoaren jarraipena besterik ez du egin Batasunak. Oso gestio kas-karra egin dute, eta aretxabaletarrek datozen urteotan nabaritu egingo dute hori.

*“Kultura aretoa alde batera uzten jakin du HBK, eta kultura azpiegiturari dagokion proiektu indartsua adostu dugu”*

*“Etorkizunari begira gestiorako bi tresna garrantzitsu jarri dira abian: Plan Estrategikoa eta Bihargintza”*

*“Gazteei herria zikintzen eta pintadak egiten uzten diete, eta batzuk benetan mehatxuzkoak direla kontuan hartu behar da”*

*“Kudeaketari dagokionez, aurreko udal agintariak ezarritakoaren jarraipena besterik ez du egin Batasunak”*

## ANALISIA

### Asko aldatu da Aretxabaleta azken lau urteotan

**E**z da samurra lau urte berba bitan laburtzea. Era berean, ez dira berba bi baino gehiago geratuko herritarren oroimenean. Udalean lan egin zezaten aukeratu genituen ordezkariak -EHkoak sei, EAJ/EAKoak bost, PPkoa bat eta PSEkoa beste bat- herriaren alde egin dutela pentsatu gura dugu, nahiz eta beti geratu kezkatzoa.

Asko aldatu da herria lau urteotan. Etxeak barra-barra egin dituzte, automobilak ugaritu egin dira, eta biztanleriak gora egin du. Beroa

lantegia herritik aldentzea lortu zuten, metro batzuk ez bada ere, eta atzeratuendako etxebizitza egin dute herri erdi-erdian. Argi dago aldaketa batzuk ikusgarriak izan direla: Urkuluraino bidegorria, Gernika plazako zabuak, ludoteka berria, KZGunea, etxebizitza sozialak eta babestutakoak egiteko proiektuak, laugarren udaltzaina, gazte-lekua... Beste aldaketa batzuk isilpean pasatu zaizkigu, ohikoak direlako: saneamendu lanak... Aldaketa batzuk askoren gustukoak izan dira, eta beste batzuk

gutxiren gustukoak.

Egin gura eta ezinean ere geratu zaizkie zenbait proiektu gure agintariei; aipagarriena: zinematokia, kultura aretoa edo dena delakoa. Aipatutakoak egin ez bada, gainera, ez da diru faltagatik izan, adostasun faltagatik baizik, Gobernu batzordea osatu duten taldeek ez zuten-eta adostasunik egin. Ez hori bakarrik, elkarri mokoka ibili ziren hilabetetan. Zergatik ez ote zen egin... Garestiegia zelako? Ala Batasunaren proiektua zelako? Hala ere, zerbaiten beharrea gaude; izan ere,

herrian dendak ixten dabilta -azken urtean hiru-, bai gaueko giroa bai aste bukaeretakoa asko jaitsi da, gazteek autoa erosi orduko kanpora alde egiten dute. Lo egiteko lekua ote da Aretxabaleta? Ez gure gura. Ez dago batere merke, gainera. Etxebizitza ugari hutsik, eta berriak 40 milioiren bueltan; gazteak erretiratu artean zordun.

Hori eta beste hainbat gai jorratzen zituen dortsuzko plan estrategikoa ere egin zuten. Dirua bai, gastatu zen, ezer lortu... beharbada bai. Hainbat giro, mugimendu eta

elkartetako herritarrek parte-hartzea, horixe lortu zuten, eta ez da gutxi, parte-hartzea dagoen moduan egonda... Murruxio ME, Loramendi EE, UDA... elkarteak baditugu; lan egin gura dutenak, ostera, gutxi, eta leku guztietan berberak.

Ez Udalak ez elkarteek ezta proiektu ikusgarriek ere; Aretxabaletari herritarrek eurek eman behar diote bizitza. Udalean lan egin dezaten ordezkariak aukeratu ditugu, baina guk geuk ere badugu asko egiteko Aretxabaletan. /ARETXAGAZETA

ETXEBIZITZAK/Herriko etxabe guztietan ezin izango dituzte etxebizitzak egin

## Etxabeetan etxebizitzak egiteko ordenantza onartu du Udalak

MIRARI ALTUBE

Astehenean egin zen legealdi honetako azken ohiko osoko bilkura. Etxabeetan etxebizitzak egiteko ordenantza aurkeztu zuten bertan; baita onartu ere. LKS Aholkularitzak Aretxabale-tako etxabeen gaineko azterketa egin berri du, eta 92 etxebizitza egin daitezkeela dio. Orain ordenantzako baldintzak betetzen dituzten ikusi beharko da.

Herriko etxabeetan etxebizitzak egiteko ordenantza onartu zuen astehenean udalbatzarrak. Bi urterako izango da ordenantza.

### 92 ETXEBIZITZA EGIN DAITEZKE

Etxebizitzen gainean sortu ohi den espekulazioa ikusita, Udalak ondo lotu gura izan du etxabeetan egingo dituzten etxebizitzaren gaineko gaia. Hori dela eta, ezin izango dute etxebizitza edo-

zein etxabetan egin; hainbat baldintza bete beharko dituzte: argitasuna eta airetapena, besteak beste. Bizilagunen oniritzia ere derrigorrezkoa izango da.

LKS Aholkularitzak egindako azterketaren arabera 92 etxebizitza egin daitezke: Murubide, Lausitta, Errekabarren, Belorrieta, Loramendi kaleetan, Araba ibilbidean eta Bainuetxe 10ean dauden etxabeak dira aukeratutakoak.

## LABUR

### Aretxa Plataformak sinadurak eskatzen dizkie herritarrei udal hauteskundeetan aurkezteko

Martxoan aurkeztu zuten Aretxa Plataforma. Autodeterminazioaren alde lan egiteko, baldintza demokratikoen falta salatzeko eta Euskal Herri ezkertiarra eraikitze asmoarekin sortu zuten hain zuten. Orain, maiatzeko udal hauteskundeetan parte hartzeko asmoa dauka, eta zerrenda aurkeztu ahal izateko herritarren sinadurak behar ditu. Horretarako udaletxetik pasatu beharko dira aretxabaletarrak datozen bi asteotan.

Josu Atxaga Plataformako kidearen esanetan Aretxa Plataformak aurrera egiteko asmoa dauka oztupo guztien gainetik, eta orain arte lehen indarra izan den alternatiba politikoren presentzia ziurtatu gura dute herritarren sinadurari esker.

Sinadura bilketa udal idazkariaren aurrean egingo da; ordu egia oraindik barik dago baina laster jakinaraziko dute.




### Egubakoitzean inauguratu zuten KZGunea

Joan den egubakoitzean inauguratu zuten KZGunea. Anjel Bergaretxe alkatea, KZGuneen arduraduna eta Udaleko zinegotzi bi egon ziren inauguratze ekitaldian, baita Basotxo elkar-teko ordezkariak ere. Hamar ordenagailu jarri dituzte Interneten gaineko ikastaroak emateko eta bost Interneten nabigatzeko. Monse Velasco aretxabaletarra dabil begirale lanetan, eta taldeak osatu bezain laster hasiko dituzte ikastaroak. Inaugurazioan egon ziren erretiratuek interes handia erakutsi zuten. /M.A.

**IZOTZ**  
Taberna

Mitarte, 16  
Tel.: 79 73 65  
ARETXABALETA



**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekabarren, 3  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 11 76



**ANDRA  
MARI**

Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
ARETXABALETA  
Tel. 943 79 29 26

**GARBITU S. KOOP**

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28

**IBARRA**  
estankoa




PRENTSA ETA

IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77  
ARETXABALETA



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

**Aholkularitza**


Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68



*Frutan eta  
txarkuterian  
espezialitatea*

Mitarte, 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETA

**BEIRALAN KRISTALDEGIA**



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

**KORRIKA 13/** Astelehenean, hilaren 7an, 18:00ak inguruan pasatuko da Korrika herritik

# Astelehenean etorriko da Korrika 13 Aretxabaletara

AMAGOIA LASAGABASTER

Geroago eta gutxiago falta da bi urtean behin egiten den euskararen aldeko festa handia Aretxabaletara heltzeko. Astelehenean, hilaren 7an, helduko da Eskoriatzatik bueltan Korrika 13. Egun horretan, gainera, Korrika Txikia ere egingo dute.

Dagoeneko dena gertu dago Korrika 13 ekitaldiari ongiatorria egiteko. Aurten ere AEK-k Loramendi Euskara Elkartearekin lankidetzan antolatu du Aretxabaletan Korrika ekitaldia. Ekin-tzarik garrantzitsuena, duda barik, korrika saioa izango da. Edozelan ere, aurretik giroa berotzen hasteko, hainbat jolas eta musika emanaldi egingo dituzte.

### IBILBIDEA

Korrika Eskoriatzatik bueltan helduko da Aretxabaletara. Herrian zehar sei kilometro egingo ditu Arrasaterantz abiatu aurretik. Dena aurrez antolatu moduan irtenez gero, 18:00etan hurreratuko da Korrika Eskoriatzatik Aretxabaletara. Hain zuzen ere, Ederlan lantoki parean hartuko dute aretxabaletarrak Korrikako testigua, eta Loramendin barrena sartuko dira herrira. Gero, herria alderik alde zeharkatuz, Santa Kurtzeraino iritsiko dira. Azkenik, Arbizelai pareko bidetik Arrasaterantz abiatuko dira Korrika 13ko lasterkari guztiak.



ARTXIBOA

Korrika-laguntzaileek eramango dute aurten ere Korrikako testigua.

Korrika Aretxabaletara heldu aurretik, ordea, giroa berotzen hasteko Korrika Txikia egingo dute, besteak beste.

### KORRIKA TXIKIA

Korrika Txikian herriko umeek hartuko dute parte. Hala, horiek

ere euskararen aldeko festan murgilduko dira. Korrika Txikia 15:15ean hasiko da kuartel zaharraren parean eta 16:00ak inguruan amaituko da Ludotekan. Gero, Korrika nagusia heldu bitartean, musika emanaldiak eta jolasak egingo dituzte.

## TXUTXUMUTXUA



### Iñaki Mendigurenek, 'Harry Potter' hizpide

Martitzenean, hilaren 8an, bukatuko dituzte Literatura Topaketak Kurtzebarri Eskolan. Aste osoan izan dituzte ekitaldiak: martitzenean Iñaki Mendigurenek *Harry Potter* liburuaren gainean egin zuen berba eta eguenean Kaiet Bengoetxea eta Iñaki Artetxe komikigileek komiki lantegia eman zuten. Eguenean XII. Irakurketa Maratoia egin zuten, eta herritar ugari pasatu ziren bertatik. Eta topaketok bukatzeko, Koldo Amestoi ipuin kontalaria egongo da eskolan martitzenean. /M. A.

## LABUR

### Hauteskundeetan parte har dezaketenen errolda ikusgai egongo da udaletxean

Datozen udal hauteskundeetan botoa emateko eskubidea izango duten herritarren errolda ikusgai egongo da apirilaren 7tik 14ra udaletxean. Zerrendak udaletxeko harreraren ipiniko dituzte, eta 09:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 17:00etara ikusi ahal izango dira. Horren haritik, zerrendetan agertzen ez direnek lehenbait lehen egin beharko dute erreklamazioa.

**Mortin**  
erloju-denda

Bere bezeroen  
zerbitzura

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 01 72  
ARETXABALETARA

**Iber**

★ Loteria ★  
✿ Paperdenda ✿  
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.  
ARETXABALETARA  
Tel.: 943 79 04 39

**PAGALDAI**

Opari denda  
Lurrindegia

Durana, 33 • Aretxabaleta  
943 79 10 14

**IRIARTE**

Umeen  
denda  
Helduen  
lentzeria



Durana, 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETARA

Jou Diaz

Karakina

Loramendi, 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETARA

**LEIBAR**

arrandegia



Mitarte Kalea, 1  
Tel.: 943 77 13 79  
Aretxabaleta

**Mobiliario**  
**ARENAZA**

• ALTZARIAK  
• DISEINUA  
• APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETARA

**Jauregi**  
**Okindegia**

Otalora, 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABALETARA

**AMETS**  
**TABERNA**

Iparragirre, 4  
Tel.: 943 79 01 29  
ARETXABALETARA

# Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko apirilaren 4a / 120. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABALETIA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarrigoiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Gazte Asanbladak Antimilitarista Eguna antolatu du bihar, zapatua

AMAGOIA LASAGABASTER

Bihar, zapatua, Antimilitarista Eguna ospatuko dute Eskoriatzan. Horretarako, Gazte Asanbladak jaialdi bikaina antolatu du. Herri bazkaria, kale agerraldia eta kontzertuak egongo dira, besteak beste. Hori guztia, indar militarren aurka aldarrikapena egiteko.

Antimilitarista Eguna garai bateko intsumiso taldeak sortu zuen. Gerora, soldadutzaren profesionalizazioaren ondorioz, egun hori Udaberri Festa bilakatu zen. Edozelan ere, soldadutza desagertu den arren, Gazte Asanbladak gogorazi gura du militarrek oraindik lanean dabilzala. Eta horretarako Antimilitarista Eguna izenarekin aurkeztu dute urtero udaberri hasieran egiten duten festa handia. Horixe adierazi zuten Gazte Asanbladako ordezkariak martitzenean egindako prentsaurrekoan. Horrez gainera, jakinarazi zuten Antimilitarista Egunak Irakeko eraso legez kanpoko delat aldarrikatzeko balio izango duela. Hala, esan zuten bihar, zapatua, gerraren ordez festa egingo dutela Eskoriatzan.



Gazte Asanbladak prentsaurrekoan aurkeztu zuen Antimilitarista Eguna ospatzeko gertatu duen egitaraua.

### MUSIKA ETA KALE AGERRALDIA

Antimilitarista Eguna kale animazioarekin hasiko dute, 11:00etan. Gero, *Alde Hemendik* lelopean kale agerraldia egingo

dute, eta jarraian, festan parte hartu gura duten guztiak herri bazkarian elkartuko dira. Arratsaldean eta gaualdean, bestalde, musika izango da protagonista.

18:00etan, Asier Serrano bakarlarria eta Surfing Kaos taldeak emandia egingo dute gaztetxean. Gauetan, berriz, Silencio Absolut taldeak joko du.

*Antimilitarista Eguna garai bateko herriko intsumiso taldeak sortu zuen*

*Soldadutza desagertu arren, militarrek oraindik lanean dabilzala gogorazi gura dute*

*Asanbladakoek herri bazkaria, kalejira eta kontzertuak antolatu dituzte, besteak beste*



### Herri Kirolekin agurtu zituzten Trukeko lagunak

Azken asteotan Debagoienan egon eta gero, Mundukideko Truke Programan parte hartu duten lagunak nor bere herrialdera itzuli dira. Kooperatiba ugari bisitatu dituzte, eta trukean euren esperientziaren berri eman digute. Horregatik, joan aurretik HUHEZIn sekulako festa eskaini zieten. Besteak beste, herri kirol probak antolatu zituzten. Hala, aurtan Hego Amerikatik eta Afrikatik etorritako lagunak sokatiran eta arto-batzen ere bada kitela erakutsi zuten. /A.L.

### LABUR

#### Aperribai izango da Aldaieko presidente berria

Joan den zapatuan, hilaren 29an egin zuen urteko batzar orokorra Aldaie Elkarteak.

2002ko urteko balantze ekonomikoa eta joan den urtean egindako ekintzen erreposoa egin zuten, besteak beste, bileran. 38 bazkide izan ziren bileran. Bederatzi kidek osatzen dute elkartearen batzordea, eta bi urtetik behin, batzordekide erdiak aldatu egiten dituzte. Oraindik batzordea guztiz osatu ez badute ere, Jon Aperribai izendatu dute presidente berria.



**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**ESKORIATZA**

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**OHARRAK**

**KORRIKA 13 BADATOR!**

Apirilaren 7an Korrika 13 Gatzagatik behera Eskoriatzara helduko da.

17:30ean eskoriatzarrek lekuko hartuko diete gatzagarrei Marulandan, eta arratsaldeko lauretatik Korrika heldu arte umeendako jolasak egongo dira Herriko Plazan. Eragintza taldearen laguntza izango dute umeek harriak jasotzeko, txingak eramateko, zaku-lasterketarako eta lokotx biltetarako, besteak beste. Hala, 17:45ean helduko da Korrika 13 Herriko Plazara. Gero, txistor jana egongo da herritarrendako.

**AXTROKIRENAGENDA**

**KORRIKA 13**

Axtrokik herritarrak animatu gura ditu datorren astean pasatuko den Korrikan parte hartzera. Bide batez gogoratu, korrika laguntzaile izan daitezke, 10 euroren truke.

**LUIS EZEIZA HERRI ESKOLAN**

**‘Koldotxo’ hiztegia sortu du Guraso Elkarteak, euskara bultzatzeko**

Luis Ezeiza Herri Eskolako Guraso Elkarteak *Koldotxo* hiztegia sortu zuen orain dela hilabete pasatxo, batez ere gurasoen artean euskara indartu eta bultzatu guran. “Gurasook euskararen alde zerbait egin beharra genuela sentitzen genuen aspalditik. Guraso askok –ni neu euskaldun-berria naiz– ez dakigu ondo euskaraz. Umeekin izaten dugun harremana gaztelaniaz izaten dugu askok eta askok. Ume askorendako eskola da euskaraz berba egin ahal duen leku bakarra edo bakarrenetakoa. Eta gurasook zerbait egiteko premia sentitu dugu. Horretarako sortu dugu *Koldotxo* hiztegia”, esan digu Guraso Elkarteko kide Sabino Benitok.

*Koldotxo* hiztegiak oinarritzko berbak euskaraz zelan esaten diren gurasoei helaraztea du helburu. Ikasleek orri baten idatzita eramatzen dute etxera hileroko *Koldotxo* hiztegia. “Lehenengo atalean *aita, ama, amona, lehengusua* eta holaroko berbak, hau da, familiarterko berbak, eman ditugu ezagutzera. Poliki bada ere, aurrera egin gura dugu”, gaineratu digu.

*“Gurasook euskararen alde zerbait egin beharra genuela sentitzen genuen aspalditik”*

Hiztegiarekin batera Guraso Elkarteak zozketa bat egiten du guraso eta ikasleen artean: “Hileroko alde aurretik landutako berba bi euskaraz zelan esaten diren galdetzen dugu. Arrakasta handia izan du zozketak; izan ere, lehenengo zozketan 60 lagunek hartu dute parte”, esan digu Guraso Elkarteko kideak. Lehenengo zozketako hiru saridunak Eneko Azkargorta, Irati Moto eta Argitxu Zubillaga gatzagarra izan dira. Guraso Elkartearen gaineko edo *Koldotxo* kanpainaren gaineko informazio zabalagoa jaso gura duenak [LUIS3@canal 21.com](mailto:LUIS3@canal 21.com) eta [euskalnet.net/Ivaro](http://euskalnet.net/Ivaro) helbide elektronikotik aurkituko du.



Seme-alabekin harremanak euskaraz izateko kanpaina bultzatu du Herri Eskolako Guraso Elkarteak.

**TXUTXUMUTXUA**



**Gaztetxea bete zuten Xantiren lagunek**

Ehun lagun inguru elkartu ziren zapatuan Xanti Iparragirri egin zioten omenaldian. Gaztetxean Kontzejupe plataformak antolatutako bertso afarian giro aparta egon zen. Kontzejupek euskal makila eskaini zion Xantiri. Silbeira eta Estibailez bertsolari gazteek Xanti bera izan zuten bertso lagun. 22 urtez herrian bertsoan egin barik egon ondoren, gustura ibili zen kantari Xanti.

**LABUR**

**Matxainek Aldundiaren esker ona jaso du**

Iaz Espainiako Tiro Txapelketan, superbeteranoen mailan, lehenengo postua lortu zuela-eta, Foru Aldundiaren esker ona jaso du Matxainek. 2002ko kirolari onenen artean 53 lagun gorapatu ditu Foru Aldundiak. Edozelan ere, postarekin arazoren bat egon zen eta Matxain ez zen Donostian egon, ekitaldira joateko abisua berandu jaso zuen-eta. Oroigarria, dena dela, bidali diote Matxaini. Valladoliden, Bartzelonan eta Frantzian, besteak beste, izango ditu hurrengo txapelketak.



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3  
Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540

SAION DE BELLETA  
OSASUNA ETA EDERGINTZA  
**DORLETA**  
Aranburuzabala, 22 behea  
ESKORIATZA  
Tfnoa.: 943 71 51 20

**LENIZ, C.B. KONPONKETAK**



TXAPA, MARGOA  
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

## AGINTALDIARI BEGIRATUA

JOXERRA AGIRREURRETA/LEINTZ GATZAGAKO ALKATEA

*“Berba gutxitan esanda, agintaldia gazi-gozoa izan dela esango nuke”*

AINTZANE GARDOKI

Amaitzean dagoen agintaldian Joxerrak ez ditu lau urte egin alkate lanetan. Eugenio Otsoak Poloniara joateko alkatetza utzi zuenean hartu zituen alkatearen betebeharrak. Egiteko batzuk utzi dituztela dio; egindakoak, berriz, asko direla esan digu.

**Agintaldia amaitzean dago. Orokorrean zer-nolako balorazioa egiten duzu?**

Ez dakit, baina berba gutxitan esanda, gazi-gozoa izan dela esango nuke. Batzuetan pentsatzen dut gauza gehiago egiteko moduan egon garela; bestetan, aldiz, egindakoak ez direla gutxi izan uste dut.

**Zeintzuk izan ziren hasieran finkatu zenituzten helburuak?**

Agintaldirako jarri genituen helburuetatik asko bete ditugu. Jendeak esango du betiko erantzuna ematen nabilela, baina gure lan programa, zorionez, idatzita dagoenez, herriaren aurrean erakuts dezaket; 2003rako jarri genituen erronka handienak erabat bete ditugu.

**Esaguzu zeintzuk diren bete diren horiek.**

Gurel guraso elkartearen gure agintaldian sortu den taldea dugu. Udalaren laguntzarekin umeen aisialdia eta kultura etxearen dinamizazioa aurrera daramatza; Goienako partaide laguntzaile gara, euskararekin konpromiso sendoa dugu komunikabideen proiektuan; museoko obrak bukatu genituen eta Labidea denda eta Turismo Bulegoa zabaldu ditugu. Horri esker lagun bik lanean dihardute; kulturari dagokionez, berriz, eskola berritzez aparte martxan jarri dugu.

Gazteek itxita zeukaten loka la egokitu egin genien, eta euren erabilerarako baldintzak adostu ditugu; Udalaren eta gazte batzuen laguntzarekin zinema emanaldiak abiarazi ditugu; museoan zinema aretoa prestatu dugu, butaka eta guzti.

Sanmillixanak aprobetxatu



ARTXIBOA

*“Során jauregia zaharberritzeko lanak aurten hasiko dira, negozioazio gogorren ondoren”*

gura izan dira aspaldiko Gatzagako lanbideen erakustaldiak egiteko: txondorra, ira-metak, lixibak, eta abar; betiko jaiei ere eman gura izan diogu euskal ikuspegia; Soran jauregia zaharberritzeko lanak aurten hasiko dira, negozioazio gogorren ondoren. Ezin dugu ahaztu Soran dela gure erakinetatik garrantzirik handien dutenatariko bat.

Gaztainuzketan sukaldia eta zerbitzuetarako beste txabola bat zabaldu ditugu; aparkaleku gehia-

go jarri dira transformadore aldean; aparkalekuak margotu ditugu ordenatuago jokatzeko, eta, horrez gain, frontoi azpiko 16 aparkaleku baliatu ditugu jendeak erabil ditzan; udaletxea eta eskola lotzen dituen espaloia egin dugu, eta bidea zabaldu dugu; kanposantua berritu dugu; baserrietara ura eraman ditugu; auzoak asfaltatu ditugu; ehizagatik jasotzen genuen dirua bikoiztu egin dugu; gure herriko zirkulazioa ordenatu gura izan da, hainbat zirkulazio arau eta seinalizazio jarrita; baserri arloan larre berri bat egin da eta beste handi bat eskaintzekotan gara; Udalaren laguntzarekin artzainak eta abeltzainak erakundetu daitezten batu ditugu.

**Egitekoen artean?**

Herriaren gasifikazioa, ur saneamendu berria eta zuntz optikoa sartzeari. Esaldi bakarrean esateko modukoak dira, baina lan izugarria da, agintaldi oso batarako bestekoa.

## LABUR

## Korrika 13 badatorrela-eta herritarrek prestaketa lanetan dabilta buru-belarri

Aurreikusitakoak betetzen badira, Mauletik Iruñera doan Korrika 13 datorren apirilaren 7an, 17:05ean, helduko da Gipuzkoa eta Araba arteko mugara. Gatzagarrak zain egongo dira mugan egin beharreko lau kilometroak egiteko. Sorginak taldeak, Gurel elkarteak, Toki Eder elkarteak, Udalak eta herriko enpresa, denda eta tabernek ere hartuko dute parte Korrikan. Marulanda bitartean testigua eskuz esku pasatu eta gero, kale animazioa egongo da herriko txikiendako, eta gero, azken asteotan Korrikaren aldeko batzordean parte hartu duten herritarrek luncha eskainiko diete gatzagar guztiei. Hala, Gatzagan behera Eskoriatzatik, Aretxabaletatik eta Arrasatetik pasatu eta gero, Bizkaian sartuko da Korrika 13.


## Gurel gurasoen elkartearen irteera antolatzen dabil ekaineko lehenengo astebururako

Gurel, azkeneko hiru urteotan egin duen moduan, herriko ume eta gurasoendako irteera antolatzen dabil datorren ekainaren 6, 7 eta 8rako. Lehenengo bi urteetan Elantxobeko aterpetxera joan ziren Gurel elkartearen kideak. Iaz, berriz, Getariako Askixu auzoan egon ziren asteburu pasan. Baina Askixun aurten lekurik ez dagoela-eta, elkartearen batzordekideak beste aukera batzuk aztertzen ibili dira, eta Zarauzko aterpetxe batera joatea erabaki dute. Aste Santuko oporren ostean batzarra egingo dute asteburu horretako ekin-tzak antolatzeko. Bestetik, urteko kuotak kobratzen hasita dago Gurel; hortaz, bazkideek kuota ordaindu beharko dute lehenbailehen.



## Festa giroa dendaren inaugurazioan

Egubakoitzean giro polita egon zen Labidea dendaren eta Turismo Bulegoaren inaugurazioan. Mikel Laboaren *Bentatik nator bentara noa* kantuarekin eman zioten hasiera ekitaldiari. Herri-tar asko eta ibarreko jende ugari izan zen inaugurazioan. Denda eta bulegoa bisitatu eta gero, luncha eskaini zieten inaugurazioan parte hartu zuten Amaiak eta Aitziberrek. /A. G.



FAGOR

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.  
Gastañadui auzoa 42  
20540 Eskoriatza  
Gipuzkoa  
Tel: +34 943 719 000  
Fax: +34 943 719 001



AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77

Zure  
Zerbitzura



- > plater konbinatuak / kazuelatxaok / ogitartekoak
- > goizeko 07:00etatik irekita / asteburuetan, goizeko 08:00etatik
- > cyberkafea



atseden  
CYBERCAFE

araba ibilbidea 27  
aretxabaleta  
943 79 89 91

## ILUNTZEAN

Euskal Herriko  
pertsonaia ezagunak  
geurean

Eguenero,  
21:15ean eta 23:15ean

Aurkezlea:  
**Aintzane Gardoki**

**Goitb**  
Goiena Telebista

*Ikusiko  
duzu!*



Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada  
**giro!**



*Matikua jatetxea*

Azata auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

**GOYARAN ERRETEGIA**



Eguneko menua

Solohaundi 25 Aretxabaleta 943 79 68 57

**LAGUNAK**

DASTALEKU

Tel. 943714063

*Gustora egoteko!*

Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA

**Taberna Berri**



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

**URBALTZ**  
TABERNA



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 943 79 79 79  
ARETXABALETA

**Dorleta**  
taberna

*Bezeroen zerbitzura*

Loramendi, 8  
ARETXABALETA  
Tel.943 79 94 15

**HIRUSTA JATETXEA**

Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

**IOSU**  
taberna  
harategia

Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak

Mitarte 1  
Tel.. 943 77 03 08



*Mitartegarai*



Areantza auzoa, Aretxabaleta  
943 79 17 51

**IBARRA**  
JATETXEA

Menua  
eta  
karta

Araba ibilbidea 29  
ARETXABALETA  
943 79 18 03



ESKORIATZA

**Bazkariak  
eta  
afariak**

Tfno 714345



ERRETEGIA

Mendiola auzoa  
ESKORATZA  
943 71 43 45  
Astelehenetan  
itxita

MENDIOLA

**EZKUTU**  
TABERNA



Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

**ORLY**

Herriko plaza  
943 79 09 33  
ARETXABALETA

**BASABE**

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84

**Aretz**  
taberna

ORDUTEGIA:  
Astelehenetik ostiralera  
9:00etatik zabalik  
Astebukaeretan  
11:00etatik aurrera



Markole, 5 behea  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA